

**Euskararen eta gaskoieraren arteko harremanak:
zubereraren adibide batzuk**

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Euskararen eta gaskoieraren arteko harremanak: zubereraren adibide batzuk. Euskal Herriko Unibertsitatea - Université du Pays Basque. Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar, Jul 2011, San Sebastián - Donostia, Espainia. Eusko Jaurlaritza - Gouvernement autonome basque, pp.151-164, 2012, XXX. Udako Ikastaroak - XXXèmes Stages d'été. <artxibo-00772185>

HAL Id: artxibo-00772185

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00772185>

Submitted on 10 Jan 2013

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

EUSKARAREN ETA GASKOIERAREN ARTEKO HARREMANAK: ZUBERERAREN ADIBIDE BATZUK

JEAN-BAPTISTE COYOS
(IKER-Baiona)

1. Sarrera

Artikulu honetan euskararen eta Gaskoniako okzitanieraren arteko harremanak aztertzen dira, zubereraren eta auzoa duen Biarnoko gaskoieraren artekoak hain zuzen, deitzen den bearnesa edo bearnera. Ikergai hau biziki zabala baita adibide batzuk emanen ditut bakarrik. Ohartaraz dezadan, euskararen eta Gaskoniako okzitanieraren arteko harremanak deskribatu izan baldin badira ere¹, Pirinioetako bi hizkuntza ez jatorrikide horien arteko harremanak ongi ezagutzeko ikerketa asko egiteko direla oraino.

Noski hizkuntza-ukipen hori, hizkuntza-ukipen denak bezala, hiztunen bidez gauzatzen zen, euskal eta bearnes komunitateen arteko harremanetan. Harreman linguistiko horiek bi norabideetan gauzatu ziren. Alde batetik, adibidez, zubererak bearnesari hitz asko mailegatu zizkion (ikus 3. lerroaldea)². Halere, beste norabidean ere, eta hori ez da bestea bezain ongi aztertua izan, euskarak bearnesean eragina izan zuen. Noski gaskoieraren sorkuntzaren garaian gertatu zen hori, euskara substratua izanez, eta ondotik garai batez mintzatua izanez

¹ Ikus adibidez Rohlf's (1977), Ravier (2011). Bearnesaren eta zubereraren arteko harreman berezietz ikus Peillen (1992, 1998) eta Coyos (2001, 2006, 2011). Gaskoieraren eta Nafarroa Beherako euskararen artekoak ikus Haase (1990, 2002).

² Bistan da hau ere irudi bat da. Zubererak bearnesari ez zion mailagutzen, baina bai zubere-radunek hitzak, erranmoldeak bearnesdunei.

gaskoierarekin batera. Baina geroztik ere, hizkuntza auzo gisa bearnesean eragina izan zuen euskarak (ikus 4. lerroaldea).

Iraganaldia baliatzen dut harreman linguistiko horiek orain agortuak baitira. Gaur egun zubereradunak eta bearnesdunak gero eta gutiago dira, hizkuntza horien irakuskuntza emendatzen baldin bada ere, euskararena bereziki. Hiztun horiek denek, euskaldunek nahiz bearnesek, frantsesa ezagutzen dute eta zinez guti dira frantsesaz gain euskara eta gaskoiera ezagutzen dituztenak, hots hirueledun direnak.

Bi hizkuntza horiek luzaz kontaktuan izan baitziren, hiztun asko gutxi gorabehera elebidun edo elebidun hartzaile ziren, Zuberoakoak bederen, eta hizkuntzen alor denetan eraginak izan zirela pentsa dezakegu. Bearnesa guti edo aski menperatzen zuten euskaldun horiek ez ziren bakarrik letradunetan, elizgizonetan edo legelarietan aurkitzen; laborarien artean edo salerosleetan aurkitzen ziren biarnotarrekin zituzten harreman komertzialengatik.

2. Zuberoaren eta Biarnoren arteko harremanez

Harreman linguistiko horiek aztertu baino lehen has gaitzen bi lurralde horiek izan zituzten harreman ezberdinak azaltzen. Askotakoak izan ziren, ekonomikoak, administratiboak, erlijiozkoak, kulturalak, etab. Hizkuntzekin bezala, hemen ere ez dugu erranen Zuberoak eta Biarnok harremanak izan zituztela, baina bai zuberotarrek eta biarnotarrek zituztela. Lehen ikuspegiak, kontaktua geografikoa da, Zuberoako eta Biarnoko arteko muga handia da eta Zuberoak Gaskoniarekin duen bakarra da. Baina harremanak giza taldekoak ziren.

Hona alor ezberdintan harreman horien adibide batzuk. Biarnoren eragin handia Zuberoan agertzen zaigu historian zehar, garai luze batean, Goi Erdi Aroan hasiz gaskoieraren, bearnesaren sortzearekin.

2.1. Administrazioa

Erdi Aroko Zuberoan gaskoia hizkuntza administratiboa zela ezaguna da. XIV. mendeko Zuberoako zentsu gotikoa gaskoieraz idatzia izan zen³.

Halaber, 1520ko Zuberoako ohitura, foruak beste era batez errana, *Coutumes générales du Pays et Vicomté de Soule* delakoak, gaskoieraz idatzia izan zen⁴.

“Dei kortez, Xiberoa Lannes edo Landetako ‘*sénéchaussée*’ delakoan zen, eta zombaiten ustez hanko epaileez entelegatü izateko gisan izkiribatü zen” esaten

³ Ikus Ricardo Cierbideren *Le Censier gothique de Soule* testua (1994, Baigorri, Izpegi argitaletxea).

⁴ Michel Grosclaudek 1993an gaskoieratik frantsesera itzuli zuen, *La Coutume de Soule* izenburupean.

digu Jean-Louis Davantek⁵. Beraz Zuberoarentzat apelazioko auzitegia Landetan zen eta noski erabili zen hizkuntza ez zen euskara, ez eta ere frantsesa oraino.

Halere, ohartaraz dezagun gaskoiera Lapurdiko hizkuntza administratiboa izan zela ere eta Nafarroa Beherean luzeago. Hegoaldean ere, nahiz Nafarroan, nahiz Gipuzkoan, eragina izan zuela historian zehar. Beraz gaskoiera hizkuntza administratiboa izatea ez da Zuberoako berezitasuna.

2.2. Elizaren administrazioa

Zuberoa Oloroeko elizbarrutin zagon. Oloroe, *Auloron* bearnesez, zubereraz [olú(w)e], Biarnon da. Apezpikua beraz Oloroen zegoen eta xvii. mendean Mauleko Maitia familiako hiru kide Oloroeko apezpikuak izan ziren, katolizismoa indartzeko Biarnoko eta Zuberoako protestanteen aurka.

Seminario ttipia Oloroen zen ere bai zuberotarrentzat. Eta ikasle horien artean zuberotar famatu bat badugu xix. mendean, Agosti Xaho atharraztarra. Han egon zen bigarren mailako ikasketak egiteko 1822tik 1830 arte⁶. Frantsesa zen orduan hizkuntza nagusia.

Orain Oloroe Baionako elizbarrutiari lotua da, Lescar bezala, eta ondorioz Zuberoa ere.

2.3. Hezkuntza eta eguneroko bizitza

Biarnorekiko giza harremanak eta harreman ekonomikoak hedatuak ziren. xx. mendeko hasiera arte, gazte batzuentzat ohidura zen apendiz gisa joatea, laborari izan dadin, zurgile izan dadin, etab. Orduan, ofizio baten ikastearen gain, bearneraren ikastea ere zen helburua.

Lexikoak harreman ekonomikoen garrantzitasuna erakusten digu. Bearnesak zubererari eguneroko tresna eta gauzen eremuei hitz asko eman zizkion, artisautzaren lanbideetan bereziki, bizitoki lexikoan ere (Coyos 2006). Zubereran 68 lan tresnatako izen mailegatu zenbatu ditut adibidez, 70 ontzi eta etxetresnatako, 347 ekintza-izen eta ekintza-aditz! Orain, hitz horietarik batzuk desagertu dira teknika eta lanbide tradizional horiekin batera.

2.4. Ezkontza mistoak eta biztanlerien nahastea

Ezkontze-harremanak aski ugariak ziren eta dira gaur egun.

Hizkuntzak ere nahasten ziren etxeetan, baserrietan Biarnon dauden Eskiulan eta Jeruntzen, baita ere Barkoxen, Montorin (Berorize), etab. Mugaldeko

⁵ *Xiberoko jauna* pastoralara, 2008: 145. or.

⁶ Patri Urkizuren *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak 1811-1858*, 1992: 18. or.

lurrealde horri buruz, Zuberoako ekialde eta ipar ekialdean, Philippe Etxegorriren 2007ko “Mugako zuberotarrek” artikulua xehetasun asko ematen dizkigu. “Euskaldunek, zuberotarrek hain zuzen, Zuberoako mugak gainditu zituzten eta Biarnoko hainbat gune landu eta jendeztatu zuten” (2007: 58). XVIII.ean eskiulatarrak Josbaig oihanean baneratu ziren eta etxaldeak Jeruntzeko lurretan eraiki zituzten” (*ibid*: 60). “Eskiulako eliza Barkoxekotik 1645ean banandu zen” (*ibid*: 61).

Beraz, oro har euskara historian zehar gibelatu baldin bada ere, garai batez Zuberoako muga gainditu zuen eta zuberotar zenbaitek Biarnoko gune batzuk jendeztatu zuten. Hitz-elkartrukeak bioarnotarrekin bearnesez egiten zirela pentsa dezakegu, euskara begiratzen baldin bazuten ere.

2.5 Ekonomia

Trantsumantzia ez zen bakarrik Zuberoako behe-lurretatik mendi-lurretara udaberrian joatea. Gaskoinarako urrutiko larre-aldaketak ohizkoak ziren euskal artzainen batzuentzat.

Altzürüküko ene informatzaileetatik batek, 87 urte ditu orain, kontatu dit nola bere haur denboran Biarnoko tratulariak etxera etortzen ikusten zituen. Euskara jakin gabekoak baitziren, etxeko gizonek bearnesa erabilten zuten pixka bat, tratuak egiteko bederen, behiak edo ardiak saltzeko.

Beste argibide batzuk harreman horiei buruz Txomin Peillenen *Les Emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne* liburuan ikus dezakegu, 17. orrialdetik 19.ra.

Beraz euskararen eta gaskoiaren arteko ukipen aukerak asko ziren eta horiek bi hizkuntzetan eragina izan zuten.

3. Zubererak bearnesari mailegatzen

Bi ukipen-alor ezberdin azaltzen ditut orain. Lehena da hizkuntza-mailegatztea, nola zubererak bearnesari hitzak mailegatu zizkion. Hau da maizenik gogora etortzen dena mailegatztea aipatzen denean, hitz mailegatztea. Maileguen zerrenda zoin den azalduko da eta mailegu horien sailkapena eremu kontzeptualeka eginen da. Sailkapen hori adierazgarria da zuberotarrek Biarnorekin zituzten harremanak ulertzeko. 2.3. lerroaldean lehen adibideak eman ditut.

3.1. Iturriak

Txomin Peillenek bilduma garrantzitsu bat argitaratu zuen 1998ko liburuan, Madrilen UNEDen argitaratua. Esan behar da beste euskalkiekin holako lanik

ez zela egin izan⁷. Ikerketa hori baliatuz emendakin batzuk egin nituen 2001ean Baionako *Lapurdum* aldizkarian. Eta denak lotuak 1.600 hitz baino gehiago kontatu nituen⁸.

Kopuru hori ez da ez hain izigarritzkoa. Ingelesak, adibidez, frantsesari gutxi gorabehera 5.000 hitz mailegatu zizkion Erdi Arotik bigarren munduko gerra arte⁹.

xvii. mendetik at frantsesak gaskoierari lekua hartu zion zubererari mailegu ekarle gisa. Baina orain, gero eta gehiago euskara batua da mailegu ekarle hori, oraingo Zuberoako euskaldunek euskaraz ikasten baitute, gazteek bederen, harremanak beste euskaldunekin gero eta handiagoak baitira, euskarazko prentsa eta ikus-entzunezko komunikabideak Zuberoara heltzen baitira.

3.2. Gaskoieratik? Gaztelaniatik? Galdera ezberdinak

Balizko mailegu horiek aurkeztuko ditut oharrik egin gabe, jakinez galdera, azalpen edo iruzkin asko egiteko lirakeela. Ikerketa bereziak ere.

Mailegua Biarnoko gaskoieratik, gaztelaniatik, latin arruntetik edo Elizako latinetik etortzen ote da? Nola jakin Gaskoniako okzitanieratik etortzen denez? Hori egiaztatzea ez da beti erraz okzitanierak eta gaztelaniak, hizkuntza jatorrikideek, elgarri mailegatu baitzizkieten historian zehar.

Kasu batzutan argi da zubererak gaztelaniari hitza mailegatu diola. Hona bi adibide: ‘palazio, jauregi’, *palatiu* latinez, *palacio* gaztelaniaz, [palásjo] *palazio* zubereraz baina, [palé] [paláj] *palais*, *palatz* bearnesez; ‘prezio’, *preñium* latinez, *precio* gaztelaniaz [présjo] *prezio* zubereraz baina [prets] *prètz* bearnesez.

Eta gero nola jakin bearnesetik edo era zabalagoan gaskoieratik etortzen denez? Eta noiz mailegatu izan den? Hona beste galdera batzuk. Beste euskalkiek mailegu hori dakautenez ala ez. Euskaraz, zubereraz hain zuzen, baliokidea edo sinonimoa denez ala ez. Gaur egun mailegu hori erabilia denez, asko ala guti, ala kasik edo osoki galdua denez. Hots galderak asko dira; erantzunak ez ditugu hemen emanen artitulu honen gaia ez baita.

Ahozkatzeak laguntzen gaitu mailegua denez erabakitzeke, zubereraz azentua azken silaban baldin bada mailegu zantzua dela badakigula¹⁰: zubereraz

⁷ Interesgarria litzateke jakitea, adibidez, zoin izan zitekeen lapurterak mendeetan zehar gaskoierari mailegatu zizkion hitzak edo gipuzkerak zizkionak.

⁸ Junes Casenave Harigilek bere 1989ko eta 1993ko zuberotar hiztegieta mailegu horien gehiengoaz baztertu ditu, maizenik sarrera lexikaletan ez dira agertzen. Zuberoako ikastoletan ez dira irakasten ere, joera orokorra euskara batura joatea delarik mailegu bat erabili baino.

⁹ Anne Szulmajster-Celnikier-en arabera: *Compte rendu de Les mots voyageurs. Petite histoire du français venu d'ailleurs*, in *La linguistique*, 2006, 42-1: 142. or.

¹⁰ Ikus Coyos 1999: 82-84.

bukanas / mukanas [mukanás] ‘sudur-zapi’, gaskoieraz *mocanàs*. Maizenik, hau da eredia, zubereraz azentua hitzaren azkenaurreko silaban kokatzen da: *etxe* [étʃe], *etxea* [etʃja].

3.3. Maileguen zerrenda

1.600 bat hitz mailegu horietan bi adibide har ditzagun, bi eremu kontzeptual ezberdin. Batean zubererak guti mailegatu dio bearnesari. Bestean asko mailegatu dio.

● Espazioa, aldia, aroa

Oro har, eremu kontzeptual horretan 33 hitz aurkitu ditut (Coyos, 2006: 206), espazioa eta aroa bi eremu kontzeptual ezberdin direla ohartuz. Nik hemen lotu ditut.

Hona espazioaren eta aroaren eremuetan ahalezko bearnes maileguak zubereran sartu zirenak:

adesara ‘duela guti’, *arroila* ‘ubaki, bide-bazter’, *arrunt*, ‘ertan, orain berean’, *bahomet* ‘haize-zurrumbilo’, *bisanbis* ‘buruz buru, parez pare’, *buhada* ‘ufako (haize, aide)’, *deskuster* ‘urrutiko etxe, lurralde bakarti’, *entertan* ‘anartean, bitartean’, *fresküra* ‘freskotasuna’, *galerna* ‘mendebaldeko ekaitz’, *goheña*, *guheña*, *guhaña* ‘bero sentigarri, trumoi’, *gorga* ‘urmael’, *istant*, *ixtant* ‘istant, aldiune’, *kanpaiña* ‘baserria’, *kantü* ‘erpin, angelu’, *khantü* ‘hurbil = zub. *hüilan*’, *kharru* ‘karroin = horma’, *khinta* ‘bide sakon’, *khürübil* ‘zurrumbilo’, *kuntino* ‘eten gabe’, *labeda* ‘eguzki haize’, *lahina* ‘elur kantitate tiki’, *lanpi* ‘lauso, lurrun’, *pasadera* ‘pasagune’, *phasü* ‘igarotze’, *salara* ‘lohi eta elur nahasi’, *sasu* ‘urtaro’, *setemer* ‘irail’, *tenpesta* ‘ekaitz’, *tiribiti* ‘ur, haize zurrumbilo’, *txitxer*, *tzitzer* ‘babazuza, izotz-pikorta’, *ürrüpea*, *ürrüphea* ‘alubioi lautada’, *zingla* ‘erlaitz’.

● Kalifikatzaileak, kalitateak

Hona bigarren eremu kontzeptual bat, kalifikazioarena, kalitatearena. Honetan zubererak gehiago mailegatu dio nolakotasuna adierazteko. Zerrenda luzea da, 226 hitz kontatu ditut (Coyos 2006: 207-208).

Bistan da, hori ez da errepikatuko, mailegu horiek ez dira denak gaur egun erabiliak edo gutxi. Adineko hiztunek ezagutzen dituzte bereziki.

abarizios ‘xuhur, dirukoi’, *abil* ‘antzetsu, trebe’, *adret* ‘antzetsu eskuz’, *adrezia* ‘trebetasuna eskuz’, *afrus* ‘ikaragarri itsusi’, *agrados* ‘atsegingareri’, *ahül* ‘ahul, makal’, *aillart* ‘bizi, erne’, *airus* ‘apain, lirain’, *aisa* ‘erraz’, *animus* ‘kementsu’, *anple* ‘geldi, mantso’, *arkamas* ‘moldakaitz, trakets’, *arkoil* ‘botza marrantatu’, *arkülo* ‘zangomakur’, *arranegat*, *arnegat* ‘gizon, haur beldurgarri’, *arnegarri* ‘aspergarri, euskal atzizkiarekin’, *arrabuhi* ‘erretxin’, *arahéin* ‘arretatsu’, *arraro* ‘balio handiko’, *arrazunáble* ‘zentzuzko’, *artifizius* ‘artifizial’, *aspre* ‘garratz, samin’, *atrebi* ‘adoretsu’, *arrogánt* ‘handiustez bete’, *ausart* ‘adoretsu’, *azisétan*, *axisetan* ‘xekatu’, *bahalaüt* ‘kalakari’, *bahest* ‘aldrebes’, *balentia* ‘harrokeria’, *balentius* ‘harroputz’, *balius* ‘baliozko’, *barhan* ‘bitxi, *variáble* ‘aladagai’, *baude* ‘xahutzaile’, *bekatiüt* ‘inozo, lelo’, *bertütus* ‘bertutezko’, *bigurt* ‘bizkor’, *bistus* ‘ikusgai’, *bisilant* ‘erne, atzarri’, *blü* ‘urdin’, *blunt* ‘gorri,

hori', *bolest* 'bolondres', *briulet* 'ubel', *brut* 'liskarzale', *bulest* 'trebe'.

Zerrenda luzatzen da, a- eta b- hizkiarekin hasten direnak bakarrik eman dira. Hona esanahia eman gabe bestak:

degust, deskarat, desgantzol / desgantzail, desgintal / esgintzal, desleail, desobedient, desunet / desonest, difikültus, dilijent, dispost, doit, drole, endes, enjenü, enjenius, entrabal, enüxa / enüxent, errada, errenbes, erreüs, esgart, eskanetx, espantotx, espelüxat, fade, faizunaide / faizüzü, fanfarru, farfail, fi, fidel, fier, finaut, finazios, flakü, flako / flakü, flux, friku / fripu, furius, galant, garro, glorius, grazius, güs / güsart, hardit, hastial, ihatxe / iatxa, inbidius, inbizil, infamü, injeminas, inkiet, inobre, inpazient, inpertinent, inportant, irus, jaunfutre, jelos, jenerus, jeñü / jeinhü, kaa, kalamanka, kanpix, kaskant, kauke, khürpe, khüsoi, klar, kobart, koki / kokillot, kokina, konfüs, koraje, korajus, krepaut, krüdel, küdiziat, külpütz, künküño, kuntent, küperü, küskürü, letrant, liberel, liferent, likits, linpre, lis, litxiprin, lorius, lüxürius, maidan / maidam, maier, maladret, malba, malerus, malestrük, malet / maleziüs, manus, manent, mardaller, mazi, mexki, mikalet, minarda, miserable, miserikordius, modest, monttot / munterot, muger, munto, murpiu, Musde, mutxarrot, nakhür / makhür, ñéxü, ñohorro, ñükü, obedient, ollat, pattok / patotx, peilot, pek, perdüt, perfeit, perfüdius, pergüt, petart, pettolat, phintzü / puntxu, phorrot, pihu, pikart, pikaila, piment, pitrail, plain, plazent, pratiko, praube / praue, prekazant, prest, propi, prüdent, puikot, sabant, salbaje, sapient, segür, serius, simple, sufzient, superius, talabahüt / telehüt, tartalet, thiran, thotxo, thürbüts, tink, traheil, trahenko, trankil, txaputer, txiribixket, txükü, ümi, ündülgü, ündüski, unest, xarment / xarmagarri, xauxet, zilimurdon, zilimindrin.

Hots, bearnesak zubereraren nolakotasunaren eremu kontzeptualari hitz asko eman zizkion.

3.4. Eremu kontzeptualak

Eremu kontzeptuala eta esanahi-eremua bi nozio ezberdinak dira. Eremu kontzeptual batean giza esperientza berdinari lotuak diren terminoak biltzen dira. Adibidez, lehen mailegu zerrendan espazioari, aldiari eta aroari lotu ziren bearnes hitzak bildu ditut. Espazioa eta aroa bi eremu kontzeptual ezberdinak dira.

Aipatu dudan bigarrena kalifikatzaileen eremua da, zerbaiten edo norbaiten izaera eta ezaugarriak adierazteko baliatzen ditugun hitzak.

Zergatik espazioaren eta aroaren eremuetan bearnes mailegu guti ote dira zubereran? Etnologo, zientzia kognitiboetan aditu izan gabe esan dezakegu Zuberoako gizarteak nozio horien adierazteko lexiko aski aberatsa bazuela jadanik. Eta bearnes gizarteak ez zuen eraginik izan horretan.

Aldiz, aurkeztu dudan bigarren eremu kontzeptualean, kalifikatzaileenean, mailegu asko badauzkagu. Badakigu birao egiteko, hitz lohiak eta iraingarriak beste hizkuntzei mailegatzen zaizkiela. Zubererak gaztelaniari eta bearnesari hitz asko mailegatu zizkien. Hitz horiek oro kalifikatzaileen eremu zabalagoan sartzen dira.

Baina, oro har, zoin eremutan mailegatu zuen zubererak eta zoin alortan ez ala guti? Biarnoko gaskoi okzitanierari mailegatu zizkion hitzen sailkapena egin dut, eremu kontzeptualeka, ‘L’apport lexical de l’occitan gascon béarnais au basque souletin’ artikuluan (201-223. or.).

Gaskoierak sentimenduen, kalifikatzaileen (erdeinuzkoak ala ez), ekintza-izen eta aditzen, eguneroko tresna eta gauzen eremuei hitz asko eman zizkiola ohartu nintzen. 2.3. lerroaldean erran bezala 300 bat ekintza-izen eta aditzak zerrendatu dira. Hau da hitz gehien dauzkan eremu kontzeptuala. Hona zerrenda luze horren hastapena: *abandonatü* ‘utzi’, *abertitü* ‘abisu eman’, *abiatü*, *abisatü* ‘kasu eman’, *adelatü* ‘antolatu’, *adio* ‘agur’, *adrezatü* ‘s’adresser’, *aizina* ‘aisaldi’, *akisitü* ‘eskuratu, jabetu’, *akisizione* ‘jabetze’, *akort*, *aküsatü* ‘leporatu’, *akzident* ‘istripu’, *alogü* ‘akordio, konponbide’, *amuina* ‘limosna’, *anuntzatü* ‘iragarri’... Zergatik horrenbeste mailegu eremu horretan? Erantzun osoa ez dut. Erakusten duena da bederen Zuberoako gizartearen eta Biarnokoaren arteko lokarriak estu-estuak zirela.

Alderantziz erran bezala ere, ekarpina ahula da familiaren, erlijioaren, denboraren edo espazioaren eremuetan adibidez. Eremu horiek sinesmenak, egoera munduan, familia erregistro pertsonaletan kokatzen dira, banakoengan, hurbiltasuneko erlazioetan.

Noski, emaitza horiek ikerketa sakona mereziko lukete. Hemen, hausnarketa zenbait baizik ez ditugu egiten.

4. Euskararen eragina bearnesari

Orain txanponaren beste aldeari so egin diezaiozun. Hau da artikulua bigarren zatia, bi hizkuntzen arteko ukipenaren beste alderdia, bearnesari zubereraren eraginaren adibide batzuk. Hasiko gara euskararen eraginaren adibide orokor batzuekin, zubererarena Zuberoako ibar auzoetan aztentuz bigarren zatian.

4.1. Adibide orokor batzuk

• Fonologia eta fonetika

Ezaguna da euskarak gaskoieraren substratua izanez fonologian eta fonetikan eragina izan zuela. Euskaraz bezala gaskoieran, eta beste okzitanieraren dialektoetan ez bezala, hitz guti dira r- konsonantearekin hasten direnak, hasiera absolutuan.

‘Erreka’ *arriu* da bearnesez eta ez *riu* langedozieran bezala.

Baina halere batzuk badira: latinez *ratione* ‘arrazoi’, bearnesez *rason*, Oloroen [razú] ahoskatua, zubereraz *arrazu* [arrazũ] / [arrazú].

Gaskoieraz f-en ordez h- erabilten da. Adibidez latinez *fiesta* ‘jaiegun, festa’ *hèsta* [héstə], [héstə] da bearnesez eta ez *fiesta* beste okzitaniera motetan bezala.

Latinez *fageu* ‘pago’, biarn. *hac* [hak].

Zubereraz latinezko f horrek maizenik /b/ eman du: *besta* [béšta], *bago* [bágo].

Hots, /f/ hasiera absolutuan /h/ bilakatu da gaskoian maizenik, bokalarteko gunean noizbait ere (Rohlf: 148).

Zubereraren eta bearnesaren azentuazio sistemak hurbilak dira ere. Oro har azentu oxiton eta paroxitonak ezagutzen baizik ez dituzte.

• Lexikoa

Alderantziz, gaskoierak euskarari hitz gutxi mailegatu zizkion. Grosclauden arabera gaskoiak euskal hitz horiek mailegatu zituen: bearnesez *abarca* ‘abarka’, bearnesez *agòr* ‘udazken’ cf. *agorril*, bearnesez *auròst* ‘hortzetako kantu’ (eusk. *auri* + *osti*, Rohlf: § 86), bearnesez *bisquèra* ‘teilatuko gailur’ (eusk. *bizkar*), bearnesez *sharre* ‘baliorik gabe’ cf. *txar*, bearnesez *shingarra* ‘hirugihar’ cf. zubereraz *txinkor* (2000: 6)¹¹. Beste batzuk bazirela erraten zuen.

Gerhard Rohlf:sen ustez euskarak hitz gehiago eman zizkion (*Le Gascon Etudes de philologie pyrénéenne*, 1977 (1935)). Halere, zinez guti dira euskarak gaskoierari mailegatu zizkionei konparatuz.

xiv. mendeko Zuberoako zentsu gotikoak, herrietako euskal toponimia azaltzen du, bistan da, pertsonen deitura batzuk eta goitizenak ere. Baina euskaratik etorriarik eguneroko izen bat baizik ez du edukitzen, *ahurrate* ‘ahur (kantitate), eskutada’, *ahur* gehi *-ada* gaskoi atzizkiz eratorria. Garai batez izen hori gaskoiera administratiboan sar zitekeen¹². Orain *punh*, *punhada* esaten da gaskoieraz, *ahurtara* edo *ahurkada* Iparraldeko euskaraz.

Toponimian noski, bereziki Biarnoko mendietan eta erreketan (oronimia, hidronimia), euskal hitzak aurki daitezke (ikus adibidez Grosclaude 2006, Ravier 2011). Philippe Etxegorri idatzen du: ‘... euskal toponimo ugari egundaino biziraunen zuen, bereziki Baretos ibarreko muinoetan (...). Salbaterako barrutiko

¹¹ Hona euskararen ustezko eragin bat onartuko ez dena. Etxegorri esaten digu: ‘Pirinioetako ibarretan, gaskoierak oso era bereziak ditu. Bertan euskarak luzeago biziraun zukeen. Ezau-garririk aipagarrietakoa determinatzailea da. Latinezko erak *ellum*, *ella* ziren. Ordokietan *lo* [ene oharra: [lu] ahoskatzen dena] eta *la* bilakatu ziren. Pirinioetan, *eth* eta *era* bilakatu ziren, euskararen ahoskera islatuz. Biarnon, menditik Oloroe hiribururaino erabiltzen dira’ (2007: 56. or.). Rohlf: kontuan hartuz, baieztapen hori dudakorra da. *Eth* eta *era* dira forma normalak eta *lo* eta *la*, hedatuenak beraz, bereziak. Aipa dezagun Rohlf: ‘En vue de l’évolution normale de *bellu* > *bête* (*bèth*), *bella* > *bèra*, de *illu* et *illa* les formes qu’on doit attendre régulièrement en gascon, sont *ét* et *éra*. Ces formes sont aujourd’hui limitées aux vallées pyrénéennes (...) Dans le reste de la région, y compris dans la Vallée d’Ossau, nous rencontrons des formes plus modernes (*lou*, *la*) dues à l’influence des grandes villes (Bordeaux, Toulouse) et des parlers provençaux’ (1977: 172. or.). Halaber, latinezko *capellum* ‘txapel’ edo *castellum* ‘gatzelu’ formek gaskoieraz *capèth* eta *castèth* eman dute oraingo ortografian, hitzaren bukaeran -ll gaskoieraz th bilakatzen delako eta -ll- hitzaren barnean gaskoieraz r bilakatzen delako (Grosclaude 2000: 38-39). Beraz, euskarak gaskoieraren determinatzaileen forman eraginik izan ez zuela agertzen zaigu.

¹² Cierbide, *Le Censier gothique de Soule* testua: 94. or.

Uhaitzibar apalean, ipar Zuberoako alderan, herri eta etxe izen andana bat bada, han ere euskarak duela gutxi arte biziraun delako froga' (2007: 58-59)¹³.

4.2. Zubereraren eragina: Adibide batzuk Aspe eta Baretos ibarretan

Baina beste norabide batera joanez, hasi dudan ikerketa berri baten lehen urratsen bidez, zubereraren eraginaren adibide batzuk aurkituko ditugu auzoko bearnesean. Ikerketa hori hau da: 'Zubereraren eta bearneraren arteko harremanez: lexiko mailegatua eta ahoskatzea – Lehen balantzea' (2011: 877-907. or.).

● **Aspe eta Baretos ibarrak**

Lan horretan latinetik bearnesera eta zubererara maileguak fonetikaren ikuspuntutik aztertu ditut, nola XXI. mendearen atarian hitz gaskoi horiek ahoskatzen diren, bai bearnesez (Oloroeko eskualdean bereziki) eta bai ere zubereraz¹⁴. Oloroeko hizkeraz gain Escòsekoa ere aztertu dut pixka bat Hourquebieren eta Pinqueren ikerlana baliatuz (frantsesez Escos)¹⁵. Escòsekoa interesgarria da ere zeren eta Saliesen kantonamenduko herri hori euskal mugan dago, Baxe Nafarroaren ondoan, Biarnoko mendebaldean. Oloroeko hizkera zubererari hurbilago agertzen zaio, Escòsekoa baino.

Ehun bat baino gehiago hitz komuneha ahoskatzea aztertu ditut, bokalen, konsonanteen eta azentuazioaren gauzatzea sinkronian konparatuz. Konparaketa horrek argibide asko ekarten dizkigu eta Aspe eta Baretos (Baretetze) ibarretako ezaugarri zombait bereziki. Biarnoko Baretos ibarra da Zuberoa hego-ekialdean ukitzen duena, Nafarroatik (Erronkari) Eskiula arte ipar-ekialdean. Aspe ibarra ondokoa da ekialdean. Beraz hiru ibarrak, Zuberoa, Baretos eta Aspe, paraleloak dira mendebaldetik ekialdera.

Ikus mapa eranskinean, frantsesez da. Zuberoa berdez da, Baretos ibarra marroiez. *Tardets* (Atharratze), *Barcus* (Barkoxe), *Esquioule* (Eskiula), *Lanne* (Landa), *Arette* (Ereta)¹⁶, *Féas* (Inhaze), *Oloron-Sainte-Marie* (Oloroe), *Géronce* (Jeruntze) agertzen dira, besteak beste. Zati xuria eskuinean Aspe ibarra da.

● **Oloroeko edo Aspe eta Baretos ibarretako ezaugarri batzuk**

Hona berriemaileekin, lekukoekin lan eginez agertu zizkidan ezaugarri batzuk.

¹³ Salbaterra Biarnoko hego-mendebaldean dago, Zuberoako ipar-mendebaldean. Eskiula eta Jeruntze Zuberoako ipar-ekialdean daude.

¹⁴ Eskerrik asko Oloroeko lurraldeko hizkeraz nire bi berriemailei: Nathalie M. (72 urte, Estos, Oloroe ondoko herria) eta Rene L. (61 urte, Oloroe/Auloron). Gilbert N.-ren hitz batzuen ahoskatzea bildu nuen (80 urte, Balansun/Valensun, Orteze ondoko herria).

¹⁵ *Phonologie synchronique et phonétique historique du parler d'Escos (Béarn)*, 1982.

¹⁶ Arette r bakar batekin idazten da frantsesez, eta ez birekin mapan bezala.

[ʒ]-ren erabiltea [j]-ren ordeaz

Beste Iparraldeko euskalkien /j/ fonema /ʒ/ ahoskatzen da zubereraz: *joan* ‘joan’ [joan], baina zubereraz [ʒun].

Mailagatzearen bidez ere /ʒ/ sartua da Zuberoan: *mintzaje* [mintsáʒe] ‘mintzaira, hizkuntza’, *-atge* atzizki gaskoiarekin.

Kontsonante horrekin Oloroeko, mendietako bearneraren eta zubereraren arteko hurbiltasunaren adibide bat badugu: ‘joko’ izena, Iparraldeko beste hizkeretan [jokó] da, zubereraz *jokü* [ʒóky] da.

Oloroeko bearnesaz *jòc* [ʒɔk] erraten da, baina Escòsen edo Biarnoko ipar-ekialdeko Vic Bilhen [jɔk]; ‘jokatu’, Iparraldeko beste hizkeretan [jokatú], zubereraz [ʒok^háty].

Oloroeko bearnesez ‘jokatu’ [ʒugá] erraten da, Escòsen edo Vic Bilhen [jugá].

Ondorioz, Oloroeko lurrladeko [ʒ]-ren erabilera zubereraren eragintzat har dezakegula iduritzen zait.

[tʃ] afrikaria hitzaren amaiera absolutuan -[t]-ren edo -[tʃ]-ren ordeaz

Biarnoko mendietako hizkerek -[tʃ] afrikaria badute (Ossau, Aspe eta Baretos ibarrak). Adibidez ‘eder’, *bellu* latinez, *beth* da bearnesez: Oloroen [bet] edo [betʃ], Escòsen [betʃ]; ‘lepo’, *collu* latinez, *còth* da bearnesez, Oloroen [kɔtʃ], Escòsen [kɔtʃ].

Amaierako [tʃ] hori mendiko bearnesatzat hartua da. Halere, hitz batzuentzat Oloroeko berriemaileek forma hori bakarria erabilten dute: adib. [kɔtʃ].

Halere, amaierako -[tʃ] afrikaria Pirinioetako ibarretan hedatua da Val d’Aran, Lezeko ibarra, Salateko ibarra arte Rohlfen arabera (152. or.). Beraz zubereraren eragina baino aitzinako euskararen eragina dela erranen dugu.

Latinaren [-a] postonikoa hitzaren amaiera absolutuan begiratzea

Latinaren [-a] postonikoa hitzaren amaiera absolutuan [-a] ahoskatzen da Biarnoko mendiko ibarretan zubereraren bezala. Beraz Oloroen [-ɔ] badugu, Escòsen [-ə] eta mendietan [-a].

Adibidez: bearnesez *vaishèra* ‘baxera’, Oloroen [baféɾɔ] ahoskatzen da, Escòsen [baféɾə], Aspeko eta Baretoseko ibarretan [baféɾa] eta Zuberoa [baféja].

Halaber bearnesez *taula*, Oloroen [táwɔ] ahoskatzen da, Escòsen [táwɔ], Aspeko eta Baretoseko ibarretan Zuberoan bezala [táwla].

Hau da Baretos, Aspe ibarretako bearnesaren eta zubereraren arteko beste hurbiltasun ezaugarri bat, Val d’Araneko ibar arte hedatzen dena (Rohlf: 5). Batzutan, hurbiltasun hori Ossau eta Pirinio Garaietako ibarretako hizkerei hedatzen zaie.

e + a > ia itxidurarako joera mendiko ibar auzoetan

Itxidura horrekin Aspe edo Baretos ibarretako bearnesa zubererari hurbilago dela beste adibidea badugu. Hitz batzuetan e + a > ia bilakatzen da Baretos ibarrean. Zubereraren itxidura hori sistematikoa da.

Adibidez *Féas* (Inhaze euskaraz) Baretos ibarreko herria [hi(j)ás] ahoskatzen da; ‘urteberriko oparia’ *estrea* [ɛstriɔ] ahoskatzen da Baretos ibarrean, Oloroen [ɛstréɔ].

Itxidura hori hedatuago da batzutan, Baretos ibarretik bat.

Erreka: *arriu* eta *arrek*

Hona azken adibide bat. Erran dugu “ibai” *arriu* erraten dela bearnesez, ‘erreka’ *arriulet* erraten da. Halere, Aspe ibarrean ez da *arriu* erabiltzen baina [arék]. Rohlf’s euskal *errekarekiko* hurbiltasun horrez ohartu zen (51. or.), baina hitz hori ez da bakarrik ibar horretan erabiltzen; *rec* ere aurkitzen da Okzitaniako beste eskualde zenbaitetan.

Bistan da landa-ikerketa berriak eraman beharko dira, bereziki Baretos eta Aspe ibarretan. Nik hemen adibide batzuk baizik ez ditut eman, aurkitu ditudan lehenak. Pentsa dezakegu zubereraren eta euskararen eragina auzoko bearnes horretan hobe agertuko dela.

5. Ondorio behin-behinekoa

Oro har, adstratu gisa, bearnesak zubereraren izan zituen eraginak agertzen zaizkigu. Argiena da hitz mailegatzea. Baina beste norabidean euskarak substratu eta gero ukipen hizkuntza gisa, zubererak aztertu dugun kasuan, bearnesean izan zituen eraginak agertu dira.

Hori ageri izan da bereziki auzoak diren Aspe eta Baretos ibarretan. Bi ibar horietako gaskoierak zubereraren eragina argiki erakusten du. Aurkitu diren lehen adibide horiek ikerketa norabide berri batzuk idekitzen dituzte.

Bi hizkuntzen arteko ukipenak bi hizkuntzak eragin ditu, baina alor linguistiko ezberdinetan eta era ezberdin batez.

Bibliografia laburra

- ALLIÈRES, J., 2001, *Manuel de linguistique romane*, Paris, Honoré Champion.
- CIERBIDE, R., 1994, *Le Censier gothique de Soule*, Baigorri, Izpegi.
- CASENAVE, J., 1989, *Hiztegia Français-Eüskara* Züberotar eüskalkitik abiatzez, Ozaze (Züberoa), Hitzak.
- _____, 1993, *Hiztegia II Eüskara-Français*, Xiberotar eüskalkitik abiatzez, Ozaze (Xiberoa), Hitzak.
- COYOS, J.-B., 1999, “Aperçu de la phonétique, de la phonologie et de la morphologie”, in *Le parler basque souletin des Arbailles – Une approche de l’ergativité*, Paris, L’Harmattan, 57-93. or.
- _____, 2001, “A propos de *Les emprunts de la langue basque à l’occitan de Gascogne* de txomin Peillen”, *Lapurdum*, VI, IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea – UMR 5478, Baiona, 391-419. or.

- _____, 2006, “L’apport lexical de l’occitan gascon béarnais au basque souletin”, *Bulletin du Musée basque*, hors série, Société des Amis du Musée basque, Baiona, 201-223. or.
- _____, 2011, “Zubereraren eta bearneraren arteko harremanez: lexiko mailegatua eta ahoskatzea – Lehen balantzea”, *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Euskaltzaindiaren Nazioarteko XVI. Biltzarra - Iruñea, 2008/10/06-10, *Iker* 27, Bilbo, Euskaltzaindia, CD Rom, 877-907. or.
- ETXEGORRI, Ph., 2007, “Mugako zuberotarrek”, *Mendebaldeak badu Ekialdea*, XI. jardunaldiak, Bilbo, Mendebalde Kultura Alkartea, 53-76. or.
- GROSCLAUDE, M., 1993, *La Coutume de Soule*, Itzulpena, oharrak eta iruzkinak, Baigorri, Izpegi.
- _____, 2000, *70 clés pour la formation de l’occitan de Gascogne*, Pau, Per Noste – La Civada.
- _____, 2006 (2^e édition), *Dictionnaire Toponymique des Communes Béarn*, Pau / Serres-Castet, éditions Cairn et edicions Reclams.
- HAASE, M., 1990, “Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz”, *Euskara*, XXXV, 2, Bilbo, Euskaltzaindia, 405-415.
- _____, 2002, “Basque et gascon en Basse-Navarre”, *Bulletin du Musée basque*, Biarritz, Atlantica, 201-223. or.
- HOURQUEBIE, F. & M. PINQUE, 1982, *Phonologie synchronique et phonétique historique du parler d’Escos (Béarn)*, Giovanna Madoniaren gidaritzapean, Paris, Université René Descartes, polikopia.
- PEILLEN, Tx., 1992, “Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk”, *Nazioarteko dialektologia biltzarra*, *Iker*, 7, Bilbo, Euskaltzaindia, 247-272. or.
- _____, 1998, *Les emprunts de la langue basque à l’occitan de Gascogne*, Madrid, Estudios de la UNED.
- PER NOSTE, 2005, *Dictionnaire Français-Occitan (gascon)*, 2 liburuxka, Orthez/Ortose, Per Noste.
- RAVIER, X., 2011, “Réflexions sur la situation linguistique de l’Aquitaine à l’époque prélatine et dans les débuts de la romanisation: acquis et perspectives nouvelles”, *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Euskaltzaindiaren Nazioarteko XVI. Biltzarra – Iruñea, 2008/10/06-10, *Iker*, 26, KD Rom, Bilbo, Euskaltzaindia, 1107-1126. or.
- ROHLFS, G., 1977 [1935], *Le Gascon Etudes de philologie pyrénéenne*, Tübingen - Pau, Max Niemeyer Verlag - Marrimpouey Jeune. 3. edizio emendatua.

Eranskina: Zuberoa, Baretos eta Aspe ibarrak (mapa: iturri ezezaguna)

